

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

520. zka.

XIII. urtea

2005eko martxoaren 4a

Carlos Mugerza

**«100 kilo galdu ditut
urte eta erdian»**



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Isolamenduak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Iturgintza, gasa, berogailua, eguzki energia eta klimatizazioa

Angel

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

Ongi

Olaso Poligonoa,
15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com



UNAI VILLENA

Glaziareak urtuko dira, glaziareok elikatzen dituzten ibaiak desagertu, hondartzak galdu, desertifikazioa jasango dute lursail emankor askok, oihanak gutxituko dira... Klima aldaketa espero zena baino azkarrago ari da gertatzen eta ez badugu geldiarazten ez du atzera biderik izango. Mundua suntsitzen ari garela, aizue! "Kyoto indarrean jarriko da: eta orain zer?" mahai-inguruan izan nintzen entzule bezala duela gutxi. Hizlariak: bi zientzialari, enpresaburu bat eta politikari bat. Han entzundako kontraesanak! Kyoto betetzeak arazoa besterik gabe konponduko duela uste duena ameslari hutsa da; ameslaria edo inuzentea. Gauzak eskuratu, erabili, bota eta berriak lortu, zenbat eta gehiago hobe, zenbat eta merkeago hobe. Hori egiten dugu. Eta badirudi ez garela konturatzen (edo ez zaigula axola), horrekin batera, gu eta gero etorriko direnen etorkizuna saltzen ari garela, merke gainera.

Zein da zure seme-alabek ezagutzea gustatuko litzazukeen mundua, Alaitz? Honen hondakina ez, ezta? Ba horrela jarraituz gero... Benetako garapen jasangarria lortu nahi badugu, kontsumo eredu aldatzeko hasi beharko gara lehenbailehen; orain. Nire ustez, hori da bide bakarra. Zuri besterik okurrizten, Alaitz?

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

«Nolakoa da zure seme-alabentzat nahi duzun mundua?»

UNAI

«Sistema honek etengabeko kontsumoa behar du»

ALAITZ

Kontsumo eredu aldatzeko gain beste zerbait ere egin beharko dugu, Unai. Zaila da gure sistemak sortzen dituen ondorioak ebitatzea sistemak bere horretan jarraitzen badu. Ez naiz iraultzailea. Errealista baizik. Zer dela eta erosi, erabili eta botatzen ditugu ba, horrenbeste tona produktu-zabor? Sistema honek etenik gabeko KONTSUMOA behar duelako produzitzen jarraitzeko, hazten jarraitzeko (noraino?, zenbat? Eta batez ere zertarako?, galdetuko nuke nik, baina...) Behin maldan behera jarri gero geldiezina den harria da egungo sistema ekonomikoa.

Nork eta nola geldiarazi edota desbideratu behar du maldan behera doan harri borobila, Unai?

Bidezko merkataritzaren oinarriak lege bihurtu beharrean, Munduko Merkataritza Erakundea osatzen dutenek asmatutako arau arbitrarioek miloika pertsonak pobrezian bizitzen jarraitu behar duela erabakitzen dute. Eta Munduko Merkataritza Erakundea diodan lekuan berdin esan nezake, Mundu Bankua edota Nazioarteko Moneta Fondoa.

Geure-geurea da zerutik eroritako protokolo batek gure gaitz guztiak konponduko dituela pentsatzea. Baina nork ekin behar dio sistema aldatzeari? Supermerkatuetako plastikozko poltsak hartzeari utzi diot. Ez naiz iraultzailea.



NATURAK GIZAKIARI EGIN DION OPARIRIK ONENA
BERE BIZITZAREN LABURTASUNA DA

Plinius Secundus



Merkadilloa eta herritarren partaidetza

BARREN astekarian (2005/02/25) argitaratutako idatziaren inguruan honakoa azaldu nahi du Ezker Batua-Berdeak alderdiak:

1.- Ez Euskadi ez Elgoibar ez dira Batzokiak. Beraz, inork ez digu gure eskubideak betearazteko aukera kenduko, hautesleekin eta Elgoibarko erakunde nagusiarekin, bertoko udalarekin, leiala den oposizio demokratikoa, kritikoa eta konstruktiboa egin behar dugulako. Zeregin horretan, gainera, gure bidaideak aukeratzeko eskubidea ere badugu.

Euskal gizartearen arazoak konpontzeko orduan, bat gatoz guztiontzako lekua duen elkarrizketamahaia sortu behar dugula esatean, eta ideia desberdinak zein euskal gizarteak askatasunez adierazitako borondatea errespetatu egin behar ditugula azaltzean. Horren ondorioz, ez dugu ulertzen zergatik dagoen harriztuta EAJ/PNV, PSE-EEk, Einbiou-k, LABek, CCOO-k, UGTk, ELAk eta Ezker Batua - Berdeak-ek, besteak beste, bat egiten dugunean Elgoibarko ostegunetako azoka txikiaren arazoa konpontzeko

ahaleginean. Ez zarete konturatu zuok baino ez zaretela falta, EAJ/PNV eta EA?

2.- Elgoibarko Ezker Batua-Berdeak-en helburua ez da gobernu-taldearen ahuldura politikoa bilatzea, duela zazpi hilabete udaletxean eta herrian bertan sortu zen gatazka konpontzea baizik.

Ez da batere egokia borroka politikoei buruzko istorioen bitartez jendearen arreta desbideratzea, era artifizialean sortutako arazo soziala delako. Gatazka konpontzeko ahaleginak autoritarismoan oinarrituta egon dira erabat, aginduak eman dituztelako, jendea behartu egin dutelako, ez diotelako inori entzun eta legezko gehiengo absolutu demokratikoa gehiengo absolutista bihurtu dutelako.

3.- Elgoibarko Ezker Batua - Berdeak-ek ez du ulertzen zergatik darabilen EAJ/PNVk "baliozko kontsulta bakarra hauteskondeak dira" argudioa, gai horri buruzko erreferenduma zergatik ez duen egin nahi azaltzeko orduan. Erreferendumak lotesleak diren ala ez kontuan hartu gabe, EAJ/PNVko zuzendaritza-batzordeak berak aurkakoa defendatzen du Madrileko

gobnuaren aurrean, hau da, euskal gizarteak bere etorkizunari buruz askatasunez eta demokraziaren bidez erabakitze eskubidea duela. Beraz, zergatik ez da Elgoibarko erreferenduma gizartearen oso barneratuta dagoen gatazka demokraziaren bidez konpontzeko legezko tresna eraginkorra?

4.- Amaitzeko, berriro ere Elgoibarko EAJ/PNVk harri eta zur utzi du Elgoibarko Ezker Batua - Berdeak, azoka txikia lekuz aldatzeko erabakia hartu duenean irizpide LOGIKOAK, ZENTZUZKOAK eta EZTABAIDAEZINAK kontuan hartu dituela adierazi ondoren.

Ondorioz, EAJ/PNV alderdiari eskatzen diogu gatazka hau konpontzeko neurriak har ditzala behingoz, gainontzeko alderdioi zeregin behar dugun esaten denbora gehiago galdu gabe.

UNAI ZULAIKA

EZKER BATUA-BERDEAK-KO ZINEGOTZIA
ELGOIBARREN ETA ELGOIBARKO EZKER
BATUA-BERDEAK-EKO BATZARRA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jaxone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MARKETZALEA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Garrotegati, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmukaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Umuzuno, Unai Villena, Aitz Vives ESABERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



TXALOAK

IMH eguneko antolatzaileek otsailaren 25ean **IMH Eguneko ekitaldietan parte hartu zuten ikasle, irakasle, langile eta opariaren zozketan lagundu zuten etxeak** txalotu nahi dituzte: "Añota Sagardotegia (sagardoa), Gelatxo Baseria (kupelak), Areapc (MP3), Bureau-info, Xlan (4 inprimagailu), eta Kresala Hotela (talaso zirkuitoa eta afaria 2 lagunentzat). Eskerrik asko benebenetan".



KEXAK

Basarte kaleko bizilagun batek esan digunez, **Basarteko farolak ez dabiz ondo**: "Gure auzoko farolak aspaldian hondatuta daude, gabez itzalita egoten dira, eta egunez piztuta. Mesedez, dagokionak konpon ditzala lehen bailehen".

Herritar batek esan digunez, **Erretxinditik Mintxetara doan bidea oso egoera kaxkarrean dago**: "Lehenago ere kexatu izan gara, baina aspaldian dago Erretxinditik Mintxetarako bidea puskatuta. Udalak bide hau konpontzeko asmoa zuela adierazi zuen, baina momentuz partxeak besterik ez ditu jarri. Bide estuegia da, eta egunero jende mordo pasatzen da bertatik. Nire ustez, lehen bailehen egokitu beharreko gunea da".



Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12



autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**

Zure negozioan, atera probetxua telefonia mugikorrari.

Telefono mugikorra eguneroko lanean furtsezko tresna da. Mintegi honetan, **zure negozioko informazioa egunean edukitzeko, gailu eta aukera berrien** bidez eskaintzen dituen erabilera eta aplikazioak erakutsiko dizkizugu. Honela, alferrikako delirik edo bidalarik egin ez dezazun.

Sustatzaileak:



Deba Barrena
 martxoak 10
 ELGOIBAR
 Mäquina Herramienta BHI (IMH)

Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
[cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



Miramön
 Negocio Digitala

Bote prontoan



URRUZUNOREN Luma

Maialen

Aldera nituen bi lördenak, eta bankuko kredituzaleak topatu zuen Maialen. Bi aldiz gadeitu zionez, eskukoa opa zion; ordainez, eta beharretan, atxumarrak kendu zizkion, eta hüranez gero ez düte berriro elkar ikusi. Atzo dei bat egon zen, zazpiak zortzi zirela ta hamarrekook bi lördenetan saltzen zirela. Gaur egun hogerelekoa dügu zentimotan. Bi txanpon?

Joseba Esnaola



BAI ESAN?

MARIVI
AGIRREGOMEZKORTA
ELGOIBARKO ALKATEA

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna dela-eta, Marivi Agirregomezkortarengana jo dugu. Bera da Elgoibarrek izan duen estreinako emakumezko alkatea eta alkate eta emakume izateak dakarrenaz galdetu diogu.

• **Onerako al da emakumeen presentzia derrigortzea politikan?** Orain arte ez zen planteatu ere egiten gai ginela eta, agian, emakueen integrazioarako modurik onena hasieran derrigortzea izan daiteke. Halere, pertsonak balioaren arabera aukeratu behar direla uste dut, ez sexuaren arabera.

• **Zeu izan zara Elgoibarko emakumezko lehenengo alkatea. Jendeak zorrotzago hartu al zaitu?**

Emakume bati askoz gehiago exigitzen zaio. Emakumeok balio dugula demostratu behar dugu etengabe, eta herritarrei asko kostatzen zaie zuk egindako hutsegite bat barkatzea. Hutsegiteak gizonak eta emakumeok, denak egiten ditugu, baina tradizionalki gizonak izan direnez alkate, emakumeon lana luparekin aztertzen da.

• **Martxoak 8. Ospatzen al duzu?** Alkatetzara iritsi aurretik ez nuen ospatzen. Iaz Eudelek antolatutako ekitaldi batera gonbidatu ninduten eta joan nintzen, baina dauka-dan postuagatik izan ez balitz, ez nuke ospatuko.

komikia



Kokoe 008

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Emakumiak, prakak eta zigarruak»

Emakumiak erretzen? Ezta pentsau ere! Oñ ere ez dot ondo ikusten. Gizonak, hor konpon! Baiña emakumiak, etxata gustatzen. Ez dakitt zergatik, ohitturiagatik edo itxuriagatik. Hori berez dator, neri inork ez diti esan emakumiak erretzia gaizki zaganik. Oñ ere neri gizon bat erretzen ikustiak, bueno, baiña andra bat ikustia etxata irizten. Antigualekua izango naiz, ezta? Badakat erretzen daban illoba bat etxian, eta zenbat bider esaten diot, "lagaiozu erretziari". Erretzaille batzuek urte asko hartu ditiuela erantzuten diti, baiña beste batzuek..

Gero, asko kanbixau dan beste gauza bat janzeria da. Gure gazte denporan poliki janzen giñan: beti

goniak; prakak, sekula ez. Bi bider jantzi ditiut prakak, ointxe, zahartu eta gero, bixetan Anoetara juteko, Reala ikustera; besterik ez. Partidu guztixetara juten naiz.



Gu lagunetan sekula ez dogu prakarik jantzi, ohitturik ez zagan eta orduan inor ez zabillen prakekin (ez daukat nik goguan inor juten zanikan prakekin). Abarketekin bai, eh! Ibilli eta josi eta dana, gaiñera. Neskaren bat prakekin juanez gero, biharbada kargu hartuko ziu.

[GURE BERBAK]

Elipsixa

Ahozko jardunian asko erabiltzen dan baliabide bat da, eta idatzizko jardunerako ere baliagarria da. Esaldiko parte bat isiltziari deitzen joko horrela. Sarixen aditza ezkututzen da, laguntzaillia batez ere. Zergatik? Aurretik esan dogulako edo, testuinguruagatik, ezaguna dogulako. Kontakizuna bizixagua, ariñagua bihurtzen da. Kortxete artian jari dot isiltzen dan berbia edo antzekua:

-Zintzuak izango ziñaten! -Honbre! Dudia [daukak]?

- Txarren-txarrena zuan zera, biderik ez [zaguala] basarixetara!

- Ta Donostiara juan [juaten nitzan], amak eman [ematen zidan] sei pezetako pagia, ta harekin Donostiara juan bihar [nitzan], da nobixia Donostian [naukan]... Donostiara juan [juaten nitzan] trenian, da korridia ikusi [ikusten naban] nobixiak, da atzera etorri [etortzen nitzan] trenian, eta Butronguan afaldu [afaltzen naban] etxerakuan, da errial birekin [allegatzen nitzan] etxera: sei pezetak zenbat balixo zeben orduan!

- Mutill hori nik ezagutu, derrigor egin bihar [dot]!

- Ni etxian baldin banago, eziñ [naiz] radixorik be egon.

- Euskeraz ezin [gendun] egiñ, eta erderaz jakiñ ez [ez genkixan].

Jesus Mari Makazaga

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen

BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

Aztergaiak:

1. Lehendakariaren agurra
2. 2004ko memoria eta balantze ekonomikoa.
3. 2005eko helburuak eta aurrekontua.
4. Lehendakariaren eta Zuzendaritza Batzordearen aurkezpena eta

Eguna:

- Martxoak 14, astelehena

Ordua:

- 19:00

Tokia:

- Kultur Etxeko hitzaldi

gelan

Elkarteko bazkide guztiok zaudete gonbidatuta. Azalduko zareten esperantzarekin,

Zuzendaritza

URDAIL MURRIZKETA

PISUA TIRANIA BIHURTZEN DENEAN

Harrigarriak dira zientziaren eta medikuntzaren aurrerapenak. Nork esango luke Carlos Mugerza (42 urte) elgoibartarra aurrez aurre ikusita duela bi urte 180 kiloko gizasemea zenik. Ekarki dizkigun argazkiak dira garai ez horren urruneko lekukoak, egun 80 kilo pisatzen baititu. Urdail murrizketa operazioa egin eta 100 kiloko pisua kendu du gainetik. Kiloekin batera bere bizitza arriskuan jartzen zuten gaixotasun ugari uxatu eta bizi kalitatean irabazi du. Carlosek eta Belen Elorzak XXI. mendeko epidemia honi buruz hitz egin digute.



Urdail murrizketa operazioa pisua galtzeko gainontzeko saiakera guztiek huts egiten dutenean hartu beharreko erremedioa da, eta obesitate morbidoa duten gaixok bakarrik. Gorputzaren pisu ideala %50 eta %100 bitartean gainditzen duten pertsonen eta Gorputz Masaren Indizea (<http://www.gordos.com/defaultmc2.aspx> helbidean kontsulta daiteke) 40tik gorakoa dutenek, alegia. Adibidez, 1,75 metroko altuera duen pertsona batek 123 kilotik gora pisatu beharko lituzke. Pertsona hauentzat ez operatzea operazioa bera baino arriskutsuagoa izan daiteke. Hauxe zen Carlos Mugerzaren kasua. "San Bartolome batzutan zezenak harrapatu zidan eta belauna txikitu nuen. Neukan pisuak, 180 kilo, ez zidan behar bezala sendatzen lagatzen. Betidanik eduki dut operatzeko asmoa, baina lehen ez zen gizarte segurantzaren sartzen eta 2,5 milioi pezeta inguru gastu handiegia zen. Traumatologoak endokrinoarengana bidali ninduen probak egitera eta honek diabetisa aurkitu zidan. Egunean sei pastilla hartzen nituen tentsioa eta diabetisa osatzeko eta edozein unetan bihotzekoa izateko arriskua nuen. Ezin nuen horrela jarraitu".

OPERAZIO SERIOA

Urdailaren murrizketa operazio serioa da, pertsonaren jate-portaeraren aldaketa organikoaz ari baikara, eta ez aldaera estetiko hutsaz. Arriskuak eta konplikazioak hor daude, larrienak; odoljarioak, infekzioak, tronbosiak eta emboliak izanik. Kirurgi operazioen %10ean ageri ei dira eta hiltzeko

arriskua %1 eta %2 artekoa izan daiteke. Gizenegi dauden gaixok arrisku handikoak dira berez eta operazio ondokoa ere konplexua da. "Medikuarekin berba egin nuen lehen egunean ez zidan gauza on bakar bat ere aipatu: kirofanoan geratzeko arriskua nuela, are gehiago diabetes eta tentsioarekin... Halere, nik argi nuen eta operatzeko desiatzen nengoen".

Julen Abasolo medikuak operatu zuen Carlos 2003ko irailaren 11n Basurtoko ospitalean. "Medikuak 70 kiloko pisuarekin geratuko nintzela aipatu zidanean, sekula ez dudala pisu hori izan esan nion, eta berak ia 73 kilorekin jaiio nintzen erantzun zidan txantxetan. Ia urte eta erdi iraun zuten ebakuntzarako prestakuntza probek eta 20 kilo jaitsi ostean, 160 kilorekin sartu nintzen kirofanoan. Zazpi ordu pasako ebakuntzan ez zidaten sabela alderik alde ireki, laparoskopioa deituriko metodoarekin sei zulo txiki egin eta apenas igartzen da operatuta nagoela". Ebakuntza ondorengo lehen lau hilabeteetan progresiboki galtzen da pisua. "Orain 80 kilo pisatzen ditut eta egingo didaten kirurgia konpongarriarekin sobran dagoen azala kendu ostean, bostpasei kilo gehiago galduko ditut".

Operatu osteko lehen 3 egunetan ezer jan eta edan gabe egon ostean poliki poliki hasi zen jaten Carlos. "Pureak eta barazkiak lehenik, arraina gero eta orain hasi naiz haragiarekin. Denetik jateko libre naiz, baina bistarekin asko jango dudala uste arren, txuleta zati txiki batekin asetzen naiz. Ume txiki batek baino gutxiago jaten dut! eta pasatuz gero, botaka gurea etortzen zait". Izan

ere, titaniozko grapa batzuekin urdailaren gaitasuna murriztean datza Gastroplastia izeneko ebakuntzak. Janari edo elikagai gutxirekin asetuta sentitzen da pazientea eta poliki-poliki pisua galtzen du. Operazio oso eraginkorra da, guztiz onartua medikuntzan. Behin pisu batera iritsitakoan bertan mantentzea lortzen du osasunarentzako arriskurik gabe. Kasu guztietan ez da gehiegizko pisu guztia kentzen, baina bai %50a baino gehiago.

DENA ONURAK

“Lehen ezin nintzen apenas ibili, autoa behar nuen komunera joateko ere! Dauden eta ez dauden dieta guztiak probatu nituen, baina goma batek moduan funtzionatzen zuten nigan; pisua berreskuratzen bukatzen nuen. Onartuta neukan lodi nengoela: 42 urte, bizi guztia pisuakin, la Txahala de Meliton, ba horixe. Orain pasiaran, mendian eta bizikletan ibiltzen hasi naiz. Umeekin jolasteko, lanerako jantziak erosteko... Duela 17 urte erosi nituen prakak jantzi

ahal izan ditut berriz! dena erraztasunak dira eta andreak jadanik ez dudala zurrunka egiten ere esan dit”. 100 kilo gehiago zitueneko erreferentziekin bizi da oraindik, “aparkatzeko, esaterako, autotik irtetzeko lekua izango nuen begiratzen nuen eta oraindik ere halaxe egiten jarraitzen dut”. Lehen egin ezin zituen bi gauza egitea amesten du, “Elgoibarko Itzulia mendiz mendi eta Nahaste Borrastea egitea gustatuko litzaidake”. Aspaldi ikusi gabeko lagun eta familiakoek ez dutela ezagutu ziurtatu digu, “beste persona bat ematen dudala esan didate askok. Arriskua hor dago, baina emaitzak merezi du. Edozeini gomendatuko nioke operatzea”.



BELEN ELORZA



«Autobusean alboko eserlekukoa ez mugitzeak demaseko ilusioa egin zidan»

Belen Elorzak (54 urte) gizarte segurantzaren bitartez egin zuen urdail murrizketa ebakuntza iazko maiatzean, Donostian. “Obesitate morbidoa nuen eta osasunagatik egin nuen. Gero eta baldarrago aurkitzen nuen nire burua eta gehiegizko pisuaren eraginez izan nitzakeen osasun arazoei aurreratzea erabaki nuen, nahiz eta oraindik ondo aurkitzen nintzen”. Loditasun konplexurik ez zuela aitortu digu, baina oso gustura dago emaitzarekin. “42 kilo jaitsi ditut, baina inoiz ez diot galdetu medikuari zenbat kilorekin geratuko naizen, ezta inporta ere, oso ondo aurkitzen bainaiz. Operatu eta bi hilabetera danetik jaten hasi nintzen. Hasieran kostu zitzaidan ohitzea eta

botaka egiten nuen, baina berehala ohitu nintzen. Bitxikeria gisa, elikagai kurruskariak bigunak baino hobeto sartzen zaizkit”. Orain askoz arinago sentitzen da: “bizimodua osatzen duten detaile txikietan igartzen dut. Autobusean joan eta alboko eserlekukoa mugitu ez zela konturatzeak demaseko ilusioa egin zidan. Bizitza kalitatea hobetu zait. Kanean ere jende askok geratzen nau oso guapa nagoela esateko eta gustatzen zait nitaz arduratzea. Medikuntzan faktore askok dute zeresana eta 2 eta 2 ez dira beti lau, baina nire esperientzia oso ona izan da eta zalantzan dagoen edozeini azalpenak emateko prest nago”.

[PROTAGONISTA]



Susana **Mujika**

Susana Mujika Euskadi Irratiko esatari elgoibartarrak irratsaio onenaren Iparragirre saria jaso du, Faktoria programagatik. Goizeko magazina da Faktoria. Aktualitatearen alde guztiak lantzen dira, ikuspuntu guztietatik begiratuta. Analisia, eztabaida, elkarrizketak, erreportajeak eta abar luzea izaten dira programa honen edukiak. Honetaz gain, arreta berezia eskaintzen zaie eguraldia eta trafikoaren informazioari eta baita entzuleen partehartzeari ere. Susana Mujikak Euskadi Gaztean hasi zuen bere irratiko ibilbidea, kazetaritza ikasten ari zela.

[NOTIZIA]

Elgoibar Bizirik Plataformak merkadilloari buruzko galdeketa auzoka egingo du

Elgoibar Bizirik Herri Plataformak auzoz-auzo egingo du merkadilloari buruzko galdeketa. Martxoaren 3an hasi ziren botoa emateko papeletak banatzen, eta hilaren 7tik 10era auzoz auzo jasoko dituzte erantzunak. Baserritarrek, esaterako, martxoaren 10ean, goizez, Merkatu Plazan eman dezakete euren iritzia. Gainontzeko auzoetatik arratsalde pasatuko dira, 18:00etatik 20:30era bitartean, eta kanpainaren azken egunean, martxoaren 11n, herriko erdiguneari tokatuko zaio erantzuna ematea. Hala ere, astean zehar bere auzoko galdeketa parte hartu ezin duenak, asteburuan izango du aukera goizean hasi eta eguerdiko 14:30ak arte.



3.000 baietz!

3.000 baietz! lemapean egingo dute herri galdeketa. Herritar guztiak emango diete erantzuna emateko aukera. Elgoibar Bizirik Plataformako kideek herritarren partehartzea eskatzen dute, eta gutxienez 3.000 erantzun jasoko dituztenaren aldeko apustua egin dute.

[ZENBAKIA]

823

Deba Behean 823 denda daude. Horietatik 248 jaki espezializatuei buruzkoak dira; 60 jaki ez espezializatuen ingurukoak; 163 arropa eta oinetako-dendak dira; 52 farmaziak eta edergintza-dendak; 135 altzarien ingurukoak eta 165 bestelakoen arloan sartzen dira.

asteko [ARGAZKIA]



Garate-Goizartun familia elgoibartarra ageri da argazki honetan. 11 anai-arrebatik 9 bizi dira, eta horietako bost 80 urtetik gorakoak dira. Gaur bertan, Roman Garatek 80 urte egin ditu, beraz, gure partetik zorionak!

Banan-banan gogoratuko ditugu izenak eta adinak: Ana (90), Gotzon (71), Jose Luis (73), Ignazio (84), Mari Karmen (77), Rosario (86), Niceto (82), Genaro (78) eta Roman (80). Gurasoak Antonia (93) eta Genaro (78) ziren. Dudarik gabe, familia askok nahiko lukete hauen osasuna!

Ermuaranbide kaleko Ajubita Anaien enpresa 6 hilabetetan itxi beharko dute



Elgoibarko Udalak 6 hilabeteko epea eman dio Ajubita Anaien enpresari Ermuaranbide kaleko lantegia ixteko. Nahiz eta urte mordoan martxan egon, Udalak jakinarazi duenez, enpresa honek ez dauka lan-lizentziarik, eta gaur egun Ermuaranbide kalea bizigune-zona denez, lantegia industriguneraren batean kokatu beharko dute.

Hasiera batean 18 hilabeteko epea eskaini zion Elgoibarko Udalak, baina bertako bizilagunei denbora luzeegia irudituz zitzaizkien. Enpresa honek 12 langile ditu, eta metala hotzean moztzen egiten dute lan.

Tirabira handiak bizilagunekin

Ermuaranbide 11 zenbakiko bizilagunek aspaldi jarri zioten denuntzia Ajubita Anaien enpresari. Urteak daramatzate enpresa honek sortzen dituen zarata eta bibrazioak salatzen, eta azkenaldian etxebizitzako fatxadetan pitzatu nabarmenak agertu dira. Honetaz gain, enpresako makinak martxan zeuden une askotan argi indarrak gabe gelditzen ziren.

Hainbeste urtean zehar eginiko protestak aurten izan du erantzuna, eta badirudi bizilagun hauek lasaitasuna berreskuratuko dutela 6 hilabeteko epean.

[MOTZ-MOTZIAN]

Lanbide Heziketako Euskal Plana aurkeztu dute

Juan Jose Ibarretxe eta Anjeles Iztuetak 2004-2007 Lanbide Heziketako Euskal Plana aurkeztu zuten Kursaallean. Europa, Espainia eta Argetinako ordezkariak eta Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeetako arduradunak izan ziren bertan. Elgoibartik, EHlko Iñaki Kondek eta IMHko Joxean Egañak errekonozimendu garaikurra jaso zuten egindako lanagatik.



Ur Kontsortzioaren lokala

Gipuzkoako Uren Partzuergoak lokala berria ireki du Elgoibarren. Aurrerantzean beraiek kobratuko dituzte uren fakturak, eta edozein zalantza edo argibide behar duenak, bertara jo dezake goizeko 9:00etatik 13:00etara.



Arriaga-Sigma linea

Euskotren enpresak Arriagatik Sigmarako autobus zerbitzua kenduko du martxoaren 7an. Bestalde, Sorluzetik Mendaroko Ospitalerako autobus zerbitzua berdin mantenduko da, baina N-634 errepideko ohiko geltokietan egingo ditu geltidiueak.

60 etxebizitza berri egingo dituzte Santa Klara auzoan



Santa Klara auzoan, Goratu enpresaren lokal zaharra dagoen tokian, 60 etxebizitza berri egingo dituzte, 48 promozio askekoak eta 12 Babes Ofizialekoak. Bi eraikin hauen azpian bi pisuko aparkalekua egingo da.

G.S.I. Taldeak burutuko du proiektu hau, baina momentuz ez dute data zehatzik eman. Oraindik ez omen daukate baimen guztiak, baina beraien asmoa lehen bailehen lanean hastea da. Lehenengo pausoa Goratu enpresa bota eta lurra egokitzea izango da.

Inkesta

Juan Pablo II.aren osasun egoera geroz eta okerragoa da.

Aita Santuak bere kargua laga beharko lukeela uste al duzu?

J. CARLOS RODRIGUEZ

Aurre jubilatua

49 urte



“Bai, aspaldi utzi behar izango lukeela uste dut. Agintean honelako gizon bat ezin da egon. Gainontzeko guztiak jubilatzen garen bezala, berari ere iritsi zaio ordua.”

ESPERANZA FOLGOSO

Etxekoandrea

64 urte



“Bai, ez dago ondo eta ezin du bere lana bete. Inor ez da betirako, eta Aita Santuari ere iritsi zaio erreleboa emateko unea. Nire ustez kargua utzi beharko luke.”

M. KARMEN AZPIAZU

Etxekoandrea

62 urte



“Egungo legearekin ezin du bere kargua utzi, baina Aita Santu berria etortzen denean lege berria jarri beharko litzateke, eta jubilatzeke adin bat beharko luke.”

AITOR ITURRIOZ

Tramoiaria

40 urte



“Bai, oso itxura txarra ematen ari da, eta utzi egin beharko luke. Oso zaharra da. Edozein kargu betetzeko osasun ona eduki behar da, eta Aita Santuak ez dauka.”

[BAI ala EZ]

Sinisten al duzu tenporetan?

BAI %60

“Gure arbasoek naturarekin izan duten harreman estutik jakituria haundia pilatu dute. Estatistiren parekoak dira: joera asmatzeko edo datorrenari traza hartzeko balio dute.”

EZ %40

“Beti entzuten den arren tenporek hau edo beste esaten dutela, ez dakit hori gero betetzen den ala ez, kasurik ez bait diot egiten, gehiegi sinisten ez dudalako agian.”

Datorren asterako....

Amenabarren "Mar adentro" filmak irabazi du Oscar saria.

Lagunduko al zenioke gertuko bati hiltzen?

Bidali SMS bat:

7744 BARREN (espazioa) erantzuna

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

JAIOTAKOAK



**Etor Ecenarro
Ariznabarreta**
[Otsailak 5]
Guillermo eta
Miren



**Irati Uzkudun
Cabezudo**
[Otsailak 9]
Alberto eta Joana



**Egoitz Rodriguez
Goitia**
[Otsailak 10]
Maria eta
Roberto



**Patxi Moreno
Iriondo**
[Otsailak 12]
Francisco eta
Maider



**Urko Iturrioz
Iraegi**
[Otsailak 19]
Aitor eta Victoria



**Nora Gabiola
Hernandez**
[Otsailak 20]
Esteban eta Sonia

HILDAKOAK

Teresa Martinez • [81 urte] • Otsailak 1
Trino Sasiain • [71 urte] • Otsailak 6
Irene Ormaetxea • [93 urte] • Otsailak 7
Adelia Ramos • [44 urte] • Otsailak 10
Milagros Velez • [71 urte] • Otsailak 12
Domingo Larreategi • [85 urte] • Otsailak 14
Fausto Vitores • [84 urte] • Otsailak 14
Txomin Larreategui • [84 urte] • Otsailak 15
Jesus Maria Trujillo • [85 urte] • Otsailak 15
Maria Teresa Ruiz • [35 urte] • Otsailak 17

EZKONTZAK

Luis Fernando Santolaya eta Eva Maria Rodriguez
[Otsailak 5]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

Hezkuntza Bereziko irakaslea

MARIA AMIANO



- 1 Txikitan zer izan nahi zenuen?
Andereñoa, betidanik izan dut argi irakaskuntza munduan lan egitea nahi nuela.
- 2 Ikasle ona al zinen?
Ez oso ona. Ordu asko sartzen nituen. "Empollona" bat nintzen.
- 3 Azterketetan suerteak balio al du?
Bai. Aprobatzeko ikasi egin behar da, baina suertia ere garrantzitsua da. Bi faktoreak hartu behar dira kontuan.
- 4 Ikasle garaian zein ikasgai zenuen gustukoena?
Historia eta artearen historia.
- 5 Eta zein gorroto zenuen?
Latina, oso zaila egiten zitzaidan.
- 6 Zein dira ikasle on baten ezaugarriak?
Konstantzia, arreta jartzea klasean eta ikasteko motibazioa.
- 7 Zer egin behar da ikasleek irakaslea errespetatzeko?
Ikasleak motibatu behar dira, eta bestela, gogor jarri beharra dago.
- 8 Damutu al zara sekula irakasle izateaz?
Ez, alderantziz, gustora nago eta gehiago ikasteko ilusioarekin.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



MARIJO GARMENDIA ama



ASIER GARMENDIA semea

GALDERAK

- | | | |
|--|--|--|
| 1. Noiz joan zinen azkenekoz zinemara? | 1. "Mar adentro" da azkena ikusi dudana. | 1. Igandean, Polar Express ikusi nuen. |
| 2. Zein liburu irakurtzen ari zara? | 2. "Los verdugos de Dios", oso polita. | 2. "Una idea como una casa". |
| 3. Zein da telebistako saiorik gustukoena? | 3. Pelikulak eta debateak. | 3. Rocket Power eta El dia despues. |
| 4. Zein famatu ezagutu nahiko zenuke? | 4. Prince edo U2 taldeko kideak. | 4. Fran Yeste. |
| 5. Gutxien gustatzen zaizun jatekoa? | 5. Esnea, eta esnedun jakiak. | 5. Enpanadillak. |
| 6. Asteko egunik onena? | 6. Larunbata eta igandea. | 6. Ostirala. |
| 7. Ura ala coca-cola? | 7. Ez bata eta ez bestea, garagardoa. | 7. Coca-cola. |
| 8. Reala ala Athletic? | 8. Athletic, baina biak animatzen ditut. | 8. Athletic. |

TXIKI inkesta

Berdinak al dira gizon eta emakumeak?

Ainhitze Etxebarria
10 urte

Nire ustez, antzerakoak gara. Emakumeak eta gizonak gizakiak gara- eta.



Asier Jiménez
12 urte

Ez, ugal aparatuek ezberdinak egiten gaitu, baina, beste guztian, berdinak gara



Iosu Atxa
11 urte

Bai. Denok ere gizakiak gara eta neretzat behintzat, berdin-berdinak gara denok



Nerea Gurrutxaga
11 urte

Eskubide berberak ditugu, baina askotan ez dugu kontuan hartzen, fisikoki desberdinak garelako.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen-abizenak:


Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako
"GIPIZKOA ZURE ESKU"
mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Jone Makazaga**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARRENera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com



GAZTIA NAIZ

10 tsaGABE

Ainara Rodriguez 17 urte

Zure aurreneko musua espero bezalakoa izan al zen?
Bai, askotan imaginatu nuen une hori, eta oso ondo egon zen.

Musuak jaso ala eman?
Jasotzea nahiago dut.

Zein famatu azaltzen da zure fantasietan?
Keanu Reeves gustatzen zait asko.

Berarekin ligatu ezkutan ala denek jakin dezatela gezurra izan arren? Isilean, inor enteratu gabe.

Zeri ez zenioke inoiz ezetzik esango?
Lagun baten laguntza eskaerari, beti lagunduko nioke.

Bizitako uneen artean, zein besrekuratuko zenuke?
Pilarren izan nuen gela, oso ondo pasatzen genuen.

Gizona izan nahi zenuke, zertarako?
Hilekorik ez edukitzeko, askotan jasanezina da.

Ikustezina bazina, zein tokitan sartuko zinateke?
Toki askotan, kuriositatea daukadan leku guztietan.

Maitemindu al zara inoiz?
Bai, orain adibidez maiteminduta nago.

Sexuaz asko al dakizu?
Seguruenez, uste dudana baino gutxiago. Ikusi egin beharko da.

Noren azalean bizi nahi zenuke egun batez ?
Aberats baten azalean, egun osoa dirua gastatzen pasatzeko.

Elgoibarko alkatea bazina egingo zenuke?
Zeretik hasi, eta gauzak ondo egin, orain arte eginikoa aldatu.

Eta Lehendakaria bazina ?
Herriaren egoera ahal den neurrian hobetu.

Gizonak eta emakumeak berdinak al dira ?
Fisikoki ez, baina bestela erabat berdinak, gaitasun berdinak ditugu.

Ezkundu ala elkarrekin bizi?
Lehenengo elkarrekin bizi, eta gero ez litzaidake inportako ezkontzea.

Ama izan nahi al duzu ?
Oraindik ez, baina egunen baten bai.

BARREN

Argazkietan...



IMH eguna



1 Goizean goiz hasita, denetarik ekintzak izan ziren IMHn otsailaren 25ean. Argazki honetan txingak eskuan ikusten dugu ahaleginetan ikasle bat.



2 Egurdi aldera patata tortila lehiaketari ekin zioten. Eguraldi ona egin arren, hotz handia egiten zuen, eta barrenak berotzeko jan eta edatea bezalakorik ez dago. Salda, txorizoa, sagardoa eta patata-



3 Jandakoa gerri inguruan pegatu ez dadin, korrika apur bat ere egin zuten "pañuelitos" jolasarekin. Abiadura eta abilezia bat eginik aritu ziren.

4 Real eta Athletic taldeen arteko derby ikusgarriak jokatu z i -



BARREN astekariak aurkezten dizun programa berria

Gonbidatua

JOXE ARANZABAL

«**Medikuak esan dit minbizia dudala**» liburuarekin



*Medikuak
minbizia zuela
esan zionetik
bizi izandako
esperientziaren
berri emango digu
Joxek gaixoardian
ateratako
erretratuekin
lagunduta.*

Martxoak 10, eguena
Arratsaldeko 19:30etan
Musika Eskolako Auditorioan

lagun

“EZAGUNAK LAGUN” PROGRAMA ABIAN

BARREN aldizkariaren eskutik, minbiziari buruz hitz egingo du Joxe Aranzabalek

BARREN aldizkariak are gehiago landu nahi du komunikazioaren alorra. Hori dela eta, garai batean Toletxe tabernan egiten zen “Ezagunak lagun” programa berreskuratu du. Orduan Aitor Gorosabel, Su ta Gar taldeko abeslaria, eta Zuhaitz Gurrutxaga futbolista izan ziren gonbidatuak. Oraingoan ere, politika, musika, telebista, literatura eta beste hainbat arlotako aurpegi ezagunak gertutik ezagutzea du helburu aipatu programak. Bi hitzetan esateko, komunikabideen bidez ezagunak zaizkigun pertsonaien atzean ezkututzen den pertsona ezagutzea.



dozenaka irakurle. Pasa den astean liburu-a aurkeztu zuen Aranzabalek, “Medikuak esan dit minbizia dudala”.

Datorren ostegunean, martxoak 10, arratsaldeko 19:30ean hasita, Musika Eskolako Auditorioan izango da Aranzabal eta gaixotasunaren inguruko argazkiak ere erakutsiko ditu. Bere hitzetan, “ona da minbiziari buruz argi hitz egitea, batez ere jendea beldurra kentzen laguntzen diolako”.

Emakumearen Eguneko ospakizunak

Haizea Emakume Taldeak hainbat ekintza prestatu ditu martxoaren 8an ospatuko den Emakumearen Egunari begira.

Gaur, martxoak 4, Markeliñe taldeak “4 bihotz” antzezlan eskainiko du Herriko Antzokian. Talde zornotzarrak maitasuna eta gizon-emakumeen arteko harremanak aztertzen ditu antzezlan honetan. Antzerki gestuala da, hau da, hitz gutxikoa, keinuetan eta gorputzaren adierazkortasunean oinarritzen dena.

Bestalde, atzo, hilak 3, inauguratu zen “Elgoibarko emakumeak eta haien artea” erakusketa. Martxoaren 14ra bitartean izango da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Bertan; gantxiloa, margoak, oleoak, esmalteak, lora sikuak, altzari erreziklatuak etab. izango dira.

Azkenik Gasteizera txango kulturala antolatu du Haizeak. Hilaren 13an izango da. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko Pitxintxu dendara jo.

Joxe Aranzabal eta minbizia

2002ko irailaren 11n esan zion medikuak Joxe Aranzabali minbizia zuela. Bizitza erotik aldatu zitzaion bi egunetan. Baina berak ez zuen etsi, alderantziz, aurrez aurre begiratu zion gaixotasunari eta www.sustatu.com weblogaren bidez, gaixotasunaren lekuko bihurtu zituen



eusko
alkartasuna



Hauteskunde Autonomikoetan
KORROZ BOZKATZEKO ZERBITZUA

Batzokiko berritze lanek jarraitzen duten bitartean:

Aita Agirre Plaza, 5 (behea)
(Musika Eskolaren ondoan)
20870 Elgoibar


Informazioa: 943 53 05 30

Ordutegia:

Goizez:
Astelehenetik / Ostiralera
11:00etatik 12:00etara

Arratsaldez:
Astelehenetik / Ostiralera
19:00etatik 21:00etara

ALBOKUAK INMOBILIARIA



ERDIALDEAN
Egongela, bi logela,
sukaldea despentsarekin
eta komuna. Dena berri-
tua. Oso egoera onean.

MAALAN
Apartamentua, 45 m².
jan-egongela, logela,
sukaldea eta komuna.
Ia berria. Garaje itxia.

ETXE BERRIAK
ERROSARIO KALE-
AN

Errosario, 12
Tel.: 943 74 06

PILAR DAVID KORRIKALARIA

«Kirola droga bat modukoa da niretzat, behin hasiz gero ezin laga»



Energiaz beteriko emakumea da Pilar David (50 urte). San Lorentzora korrika saioa egin ostean harrapatu dugu Mintxetan. Aerobikeko kideek bete bete anasmatu zuten "Burdinazko emakumea" ezizena jarri ziotenean. 20 urte daramatza kirola eginez, eta egun bat huts eginez gero faltan botatzen du. Domekan Donostiako Lilatoian parte hartuko du.

👉 Lilatoian parte hartuko duzu.

Bai, aurten jarraian parte hartuko dudan hirugarren aldia izango da. Emakumearen askatasuna eta berdintasuna aldarrikatzen duen ospakizuna da. Lasterketa motza da, 5 kilometrokoa bakarrik, eta motz geratzen zait, baina bertako jai giroa eta duen esanahia dira garrantzitsuak. Hara goazenok ez goaz kirol jarduera bat soilik egitera.

👉 Norekin joango zara?

Antolatzaileak bakarkako lasterketa baino taldekakoa izan dadin saiatzen dira. Emakumeak taldeetan parte hartzea animatzen dituzte. Gainera, talderik jendetsu, koloretsu eta originalenari sariak ematen dizkiote. Amaieran udaletxe inguruan biltzen gara eta sariak emateaz gain emakumeen inguruko gaietaz hitz egiten dute taulatik.

Elgoibartik, 15 bat lagun joango garela aurten uste dut.

👉 Nola animatuko zenuke jendea parte hartzera?

Lasterketa oso polita eta aldarrikatzailea da, kamiseta politena ematen duena, oso ondo antolatuta dago eta Donostiako zirkuitoa zoragarria da. Behobiarekin batera jendeak gehien animatzen duen lasterketa da, kalera ateratzen baita animuak ematera.

👉 Nahikoa zabaldua al dago kirola emakumeen artean?

Baietz uste dut, kirola egiten duen emakume kopurua gizonenak baino baxuagoa izan arren, gero eta neska gazte gehiagok egiten du kirola. Aldiz, nire adin ingurukoak dira gutxien animatzen direnak. Hain zuzen ere, kirola gehien behar dutenak, ariketa fisikoa oso ona baita hezurak indartu eta osasuntsu mantentzeko.

👉 Noiztik kirolzaletasun hau?

Duela 20 urtetik. Erretzeari laga nion eta energia edo ezinegon hura nolabait bideratu behar nuenez, kirola egiten hasi nintzen. Hasieran korrika hasi nintzen San Lorentzora joanez. Mintxeta ireki zutenean aerobikean apuntatu nintzen lagun batzuk gomendatuta eta gaur arte. Gerora, kirolak droga baten antzera funtzionatzen duela konturatu naiz. Probatu ahala gero eta gehiago nahi duzu eta kirola egin ezin dudan egunetan izugarri botatzen dut faltan.

👉 Astean zenbatean egiten duzu kirola?

Lau bider. Bi egunetan spinning eta korrika beste bi egunetan. Jadanik denek ezagutzen naute hemen Mintxetan. Domina bat merezi dut, hasieratik bainago hemen, ireki zutenetik ez dut hutsik egin. Jabea neu naizela ematen du (barrez).

«Emakume elgoibartarrak Lilatoian parte hartzera animatu nahi ditut»

MORKAIKOREN IRTEERA MARTXOAREN 20AN

Aratz mendiaren inguruak bisitatuko dira



Azkenengo irteeran mendia eta sagardotegia uzartu zituzten.

Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako parajeak ezagutzeko aukera eskainiko du Morkaiko Mendizale Elkartearen hurrengo irteerak. Araia, Aratz eta Olazti artean egingo dute travesia martxoaren 20an, domekan. 27 kilometroko luzera eta 7 orduko iraupena izango duela aurreikusten dute antolatzaileek. Ibilbide luze honetan eguneko lehen kilometroak izango dira gogorrenak, Aratz mendi aldapsua igo beharko baitute pagadietan barrena. Bidean, Araia ibaiaren iturburu

ezagutzeko aukera izango da eta Aratzeko tontorretik dagoen ikuspegi ederraz gozatu ostean, ekialderantz joko dute mendizaleek. Arbarainen egingo dute indarrak berreskuratzeko geldinean. Puntu hau hiru probintzien arteko mugaria da, hain justu. Olaztin amaituko da 1.100 metroko desnibela gaindituko duen txangoa. Irteera Plaza Handitik izango da 7:30ean. Bazkideentzako prezioa: 6 euro (9 euro bazkide ez direnek). Irekita dago izena emateko epea (astelehen eta ostegunak 19:00-20:30 Morkaikon).

Antxintxikari elgoibartarrak Gipuzkoako kros txapelketan



Mintxeta Atletismo Taldeko antxintxikariek Gipuzkoako Kros Txapelketan parte hartu zuten duela gutxi Lazkaon. Infantil mutilen mailan Angel Mari Lopez izan zen herritarrik onena, sailkapen nagusiko 7. postuan sailkatu baitzen. Mikel Lopezosa 23. postuan helmugaratu zen eta 30. Postuan Borja Diez. Nesken mailako lasterketan Maria Hernandez 42. postuan sailkatu zen. Alebin mailan hiru neskek parte hartu zuten: Nora Santiago (14), Igone Gandiaga (43) eta Miren Arzuaga (61).

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 0 - Arenas 0 (3. maila)
 Elgoibar 2 - Ikasberri 2 (1. erreg.)
 Aloña Mendi 1 - Elgoibar 1 (Jub.)
 Elgoibar 1 - Aretxabaleta 0 (Kad.)
 Sport. Herrera 1 - Elgoibar 1 (Inf. A)
 Elgoibar 2 - Hemani 3 (Inf. A)
 Elgoibar 2 - Gasteiz 2 (Neskak)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg 4 - Santurtzi 5 (Nazional B)
 Lanbroa 4 - Azurki 1 (1. maila)
 Lasarte 6 - Toletxe Kafetegia 2 (Jub.)

PILOTA

Euskal Herriko Liga

Lagunak 28 - Aurrera 30 (Jub. nesk. palaz)

Udaberi Txapelketa

Lagunak 22 - Arrasateko 19 (Nag. 1. maila)
 Umietia 11 - Lagunak 22 (kad. 2. maila)

ESKUBALOIA

Sanlo 10 - Euskalduna 26 (Inf. nes.)
 Umobitza Sanlo 12 - Bidasoa 22 (Inf. mut.)
 San Adrian 27 - Pagoaga Sanlo 11 (Kad. nes.)
 San Adrian 16 - Cometel Sanlo 28 (Jub. nes.)
 Tecnomeca Sanlo 26 - Aloña Mendi 29 (Kad. m.)
 Legazpi 13 - Pneumax Sanlo 10 (Jub. mut.)
 Escolapios 26 - Tecnifuelle 25 (Sen. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan

Zapatua, 5

12:30 Elgoibar - Real Union (Inf. A)

18:00 Elgoibar - Olarizu (Jub.)

Domekia, 6

10:30 Elgoibar - Arrasate (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Kirolegian

Zapatua, 5

13:00 Toletxe Kafetegia - Aldapeta (Jub.)

ESKUBALOIA

Kirolegian

Zapatua, 5

16:00 Pagoaga Sanlo - Basauri (Kad. nesk.)

17:30 Cometel Sanlo - Basauri (Jub. nesk.)

19:00 Pneumax Sanlo - Gatz Museoa (Jub. m.)

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Zumaiako enpresak **arotza** behar du. Erref. 162005002029
- Bergarako enpresak **CNC tomurako langilea** behar du. Erref. 162005002049
- Bergarako enpresak **turismo informaziorako teknikaria** behar du. Erref. 162005002096
- Eibarko enpresak **komertziala** behar du. Erref. 162005002103
- Elgoibarko enpresak **ileapaintzaila** behar du. Erref. 162005002041
- Mutrikuko enpresak **soroslea** behar du. Erref. 162005002050
- Debako enpresak **fresatzeko makinarako langilea** behar du. Erref. 162005002027
- Azpeitiko enpresak **CNC tomurako langilea** behar du. Erref. 162005001788
- Oñatiko enpresak **sukaldaria** behar du. Erref. 162005001632
- Bergarako enpresak **frantses irakaslea** behar du. Erref. 162005001578

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

[LANA]

ESKAERA

- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **660 76 30 45**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **606 612 834**
- † Oporretako, ospakizunetako edota edozein motatako bideokak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. ☎ **617 24 26 60 (Nere)**
- † Emakumea lanerako prest: umeak, nagusiak zaindu, kamarera... ☎ **678 84 05 31**
- † Gizonezkoa lanerako prest. Igeltsero, lorazain, kamarero... ☎ **678 84 05 31**
- † Emakumea nagusiak, haurrak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **661 175 180**
- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639 88 20 04**
- † Mutila barran, sukaldean, arotz edo igeltseritza lanerako prest. ☎ **696 325 300**
- † 30 urteko gizona lanerako prest. Harakin, kamioi gidari, sukalde laguntzaile... ☎ **615 00 83 46**
- † Emakumea garbiketa, etxeko lanak egin, haur edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **696 325 300**
- † Emakumea elkarteak garbitu, haur edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699 60 91 90**
- † Emakumea garbiketa lanak egin, haur edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **630 46 21 27**

ESKAINITZA

- † Pertsona bat behar da Elgoibarren eta Mendaron buzonegia egiteko. ☎ **686 04 53 21**
- † Ingeles-komertzial irakaslea behar da. ☎ **636 44 55 43**

[LOKALAK]

- † Sigmako poligonoan lokal industrialia eta bulegoak alokatzen dira. ☎ **679 18 45 54**
- † Gazte koadrila batek lokala edo garajea hartuko luke alokairuan. ☎ **650 39 65 83**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Pisu salgai Artetxen (Inizeg de Karkizano kalean). Berritua, altzariekin, dena kanpora begira. Ganbararekin. ☎ **627 94 12 61**
- † San Roken etxea salgai. 95m², garaje plaza eta ganbara. 3 logela, sukaldea, bi komun, egongela eta bi balkoi. ☎ **656 70 29 59**
- † Pisu salgai San Bartolome kalean. Altzariekin edo altzaririk gabe. 100m². ☎ **670 555 294**
- † Etxe salgai Mendaron, plazan. 3 logela, bi komun, jangela-egongela, sukaldea, ganbara. ☎ **676 81 46 97**
- † Etxe salgai Urasandin. 90m². Dena kanpora begira. Terraza, bi komun, 3 logela, egongela. ☎ **943 74 08 26**
- † Etxe salgai Sigman. Sukaldea, komunak, bi logela, egongela. Berritua. ☎ **943 74 27 60**
- † Etxe berritua salgai Sigman. Prezio onean. ☎ **943 74 29 21/685 76 61 54**
- † Etxe berria salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. ☎ **615 77 99 20**

ALOKAIRUA

- † Logelak alokatzen dira San Roken. Sukalde erabilpena barne. ☎ **943 74 88 53**
- † Logela alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**
- † Logela alokatuko nuke Elgoibarren. ☎ **626 25 76 85**
- † Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ **610 69 95 32**
- † Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **670 25 78 04**
- † Apartamentua alokatzen da Saloun. Novelty eraikuntzan. Ekipatua, aire egokitua, igerilekua, garajea, terraza. 24 orduko harrera. ☎ **629 98 98 99/943 81 42 38**
- † Conilen (Cadiz) apartamentua alokatzen da. Bateles hondartza ondoan. Ekipatua. ☎ **680 44 26 68**

[GARAJEAK]

- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m². ☎ **646 50 28 66 (arratsalde)**
- † Garaje itxia salgai Ermuaranbiden, 19,90m². ☎ **943 74 28 75**
- † Garaje marraduna alokatzen da Santa Ana 2an. ☎ **943 74 34 27**
- † Garaje itxia alokatzen da Leku Ederren, etxe berrien azpian. Berria, estreinatua gabea, urrutiko agintearekin. ☎ **943 74 02 68**
- † Garajea salgai Pedro Mugaruzan. ☎ **943 53 00 39/645 72 79 11**

[SALEROSKETAK]

- † Citroen Xsara autoa salgai. 5 urte. ☎ **678 80 35 35/639 180 184**
- † Citroen C2 1.4i autoa salgai. Beltza. 6000 euro. ☎ **943 74 23 63**
- † Ordenagailua salgai. AMD 1000HZ, pantaila 17", eskanerra HP, inpresora HP. 4 urte, egoera oso onean. 600 euro. 150x50eko mahaia opari, gerezi eta urdin kolorekoa. ☎ **658 62 99 47**
- † Abuztuaren 9an Donostian izango den U2 taldearen kontzerturako sarrerak ditut. Interesatuek idatzi **U2sarrerakditut@yahoo.es** helbidera.
- † Citroen Xsara Picasso HDI salgai. 2003ko ekainekoko. ☎ **646 11 30 85**
- † Riejū motorra salgai. Prezio onean, nahiko berria. ☎ **686 22 35 83/943 74 26 17**
- † Sukaldeko eta egongelako altzariak salgai. Oso oso merke. ☎ **649 03 12 71**
- † Phillips minikatea salgai. 3cd, 260 watt. 210 euro. Samsung bideoa salgai. 60 euro. ☎ **696 89 60 88**
- † Renault Clio Dci autoa salgai. ABS, 2 airbag, direkzio asistitua, elektrikoa. 2002koa. 100.000km. ☎ **660 551 534**

[BESTERIK]

- † 76. urtean jaio eta ikastolan ikasitako ikasle ohiek 8. mailako afaria egingo dute martxoaren 12an. Interesatuek 30 euro sartu kontu honetan: **3035 0007 25 007 1033927**

Giauto

GIPUZKOA AUTOAK

Otaola Etor., 27
943 202500 - EIBAR

Karobi Pol., z/g
943 88 51 50 - OLABERRIA

clientes@giauto.es



AUTO BERA,
MERKEAKO

Harrerarako telefonoa
902 345 225

www.chevrolet.es



CHEVROLET

[AGURRAK]



† Datorren asteazkenean urte bete, morrosko! Zorionak **Unax**, eta muxu handi bat familiakoen, eta-bereziki, Alainen partez.



† Zure lehen urtebetetzean egun zoriontsua igaro dezazun espero dute zure ikastolako lagunak



† Zorionak **Iker** larunbatean, martxoak 5, sei urte beteko dituzulako. Gure etxeko prexioxoari, muxu potolo bat.



† Aurten larogeita bost soinean jantzita zeinek esango luke hain maja ikusita. Zorionak amama!



† Zorionak **Iker** bihar 7 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta batez ere, Andoniren partez.



† Bat, bi hiru... zorionak **Mikel** zure hirugarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



† Zorionak **Maialen** zure lehenengo urtebetetzean. Muxu potolo bat Debemeneko lagunen partez.



† Zorionak **Jone Larrañaga**, martxoaren 3an zure eguna izan zelako. Gurasoen eta ahizpa lauraren partez.



† Zorionak **Ainhoa Larrañaga Jaio** hilaren 10ean 10 urte egingo dituzulako. Elgoibarko familiakoen partez.



† Zorionak **Ane** zure 11. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.



† Zorionak **Sara**, martxoaren 6an 10 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez, oso ondo pasatu eguna.



† Zorionak **Aitor Marcos Fernandez** otsailaren 24an 7 urte egin zenituelako. Gurasoen eta amonaren partez.



† Zorionak **Andoni** martxoaren 6an 9 urte egingo dituzulako. Etxekoen eta Pilarreko lagunen partez.



† Zorionak **Jon eta Julen** otsailaren 25ean eta martxoaren 5ean zuen eguna delako. Asko ikasi ikastolan. Bihotzez, Ramon eta Elenaren partez.



† Zorionak zuei, zorionak beti, zorionak **bikote** guztion partetik!



† Zorionak **tia Arantza** zorionak beti. Orain zuri tokatzen zaizu, familia osoaren partetik.

† Zorionak **Sergio Alonso** aste honetan 9 urte egin dituzulako. Pilar ikastetxeko LH3ko lagunen partez.



† Zorionak **Mireia** zure 14. urtebetetzean. Ea futboleko kopa irabazten duzuen. Zorionak **aitabori** etxekoen partez.



† Zorionak **aitabxo, amabxo eta Loreari** familiakoen eta batez ere, Unairen partez.

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



6 igandea IBARRENEA



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
4	Zabaleta	Zabaleta	IBÁÑEZ
5	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
6	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
7	Ibañez	Ibañez	ZABALETA
8	Bidasolo	Bidasolo	Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
9	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	
10	Fernandez	Fernandez	
11	Yudego	Yudego	



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kirolegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEAK	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	IKASTETXEAK	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udalizaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
		•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
GARRAIOAK		Ikastola	943 74 44 41
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburua eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiko. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[4 BARIXAKUA]

22:15 ANTZERKIA

Izenburua: "Lau Bihotz" (antzerki mutua)
 Taldea: Markeliñe Antzerki Taldea
 Herriko Antzokian
 Haizea Emakume Taldearen laguntzarekin

[6 DOMEKIA]

16:30 ANTZERKIA


Izenburua: "Igandetan piratek jai"
 Taldea: Markeliñe Antzerki Taldea
 Lau urtetik gorakoentzat
 Herriko Antzokian
 (Korrika kulturala)

[7 ASTELEHENA]

10:30 JESHMARREN KONTZERTU PEDAGOGIKOA
 Herriko Antzokian

SINOPSISIAK

«Closer»



[9 EGUAZTENA]

18:30 HITZALDIA

Gaia: "Seme alabei mugak nola jarri"

Hizlaria: Isabel Gonzalez Acha (psikologoa)

Kultur Etxean

Antolatzailea: Herri Eskolako

Kalamua Gurasoen Elkarte

[10 EGUENA]

19:30 EZAGUNAK LAGUN

Hizlaria: Joxe Aranzabal

"Medikuak esan dit minbizia dudala" liburuarekin

Musika Eskolako Auditorioan

Antolatzailea: BARREN astekaria

[11 BARIKAKUA]

22:15 KONTZERTUA

Taldea: "Bide Ertzean"

"Esan Bare" diskoaren aurkezpena

Herriko Antzokian

(Korrika kulturala)

[12 ZAPATUA]

10:00 VII. PILOTA EGUNA

Ikastolako frontoian

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

21:00 X. BARRIKOTEA

Kimetz Elkarte

Sagardotegiko menua

Bi bertsolari eta trikitilariak alaitua

Prezioa: 15 euro

Izen ematea: ohiko tokietan

Antolatzailea: Kimetz Elkarte

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Closer»

5, zapatua: 19:00-22:15

6, domekia: 19:00-22:15

7, astelehena: 22:15

«Maria llena eres de gracia» (Z.K.)

10, eguena: 22:15

«Conversaciones con mama»

12, zapatua: 19:00-22:15

EIBAR, UNZAGA

«Constantine»

4, barixakua: 19:30-22:15

5, zapatua: 17:00-19:30-22:30

6, domekia: 17:00-19:30-22:30,

7, astelehena: 19:30-22:15

8, martitena: 19:30-22:15

9, eguaztana: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Los Chicos del coro»

25, barixakua: 19:30-22:15

26, zapatua: 17:00-19:30-22:30

27, domekia: 17:00-19:30-22:30,

28, astelehena: 19:30-22:15

29, martitena: 19:30-22:15

30, eguaztana: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.



«Maria llena eres de Gracia» (Z.K.)

Zuzendaria: Mike Nichols.

Antzezleak: Julia Roberts, Jude Law, Natalie Portman.

Gizon eta emakumeen arteko egungo harremanez dihardu Nicholosen azken filmak. Elkar ezagutzen ez duten lau ezezagun dira protagonistak eta beraien artean sortuko diren ezusteko elkartzeko, maitemintze eta noizbehinkako traizioez beteko da pantaila handia. Egungo Londonen girotuta dago eta jadanik klasikoak bihurtu diren zinegilearen aurreko lanak ("Quien teme a Virginia Woolf", "Conocimiento Camal") gogora ekartzen dituela diote zine adituek.



Zuzendaria: Joshua Marston.

Antzezleak: Catalina Sandino Moreno, Yenny Paola Vega.

Maria, 17 urteko neska kolonbiarra da. Bogotá iparraldeko herrirka txiki batean bizi da arrosa plantazio batean gogor lan eginez, baina egun batetik bestera bizimoduz aldatzea erabakiko du eta zalantza eta ilunguneak nagusi diren bidaia hasiko du. Mariak badaki zer nahi duen izan bizitzan, baina desio duena lortzeko asko arriskatu beharko du. Bizitzaz beteriko heroina errebelde eta ausart honen bidaiaren lekuko izango gara ikusleak.

Atzera begira



1936 . urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Urtarrilaren 6an, Errege Egunean, ateratako argazkia da, Lerungo futbol zelai zaharrean. Erretratuan ageri direnak Zubi-Ertz koadrilako kideak dira. Begira zelako dotore ageri zaizkigun, beraien erositako futbol jantziekin! Lagunarteko futbol partidu bat jokatu zuten egun honetan, herriko beste koadrila baten kontra. Garai hartan futbolerako zaletasun handia zegoen gure herrian, eta koadrila honetako kide batzuk, futbolari profesionak izatera iritsi ziren. Jesus Gabilondo esate baterako, C.D. Elgoibar, Alaves eta Realeko jokalaria izan zen. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak. Hauetatik Jesus Gabilondo bakarrik bizi da, gainontzekoak hilda daude.

Ezkerretik eskumara: **Iñaki Konde, Felix Zubiaurre, Felix Gabilondo, Pako Egaña, Jesus Gabilondo, Pelayo Ansola, Rafael Mugerza, Jose Maria Igartua, Julio Martinez, Sabin Arriola eta Alberto Juaristi.**

Behean, makurtuta: **Eulogio Oria eta Jose Mugerza.**



I. URTEURRENA

2004ko martxoaren 4an, 76 urte zituela hil zen
Vicente Lazcano Aizpuruaren
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, martxoak 5, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



bide ertzean

esan bare

diskoaren aurkezpena



Euskara
Saila



Foru
Aldundia



Eusko
Jauriaritza

korrika
kulturala




Martxoak 11, ostirala • 22:15ean • Herriko Antzokian

Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean (Euskara Sailean) goizez

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador
Santa Clara



NEINOR **Azkoitia**

Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA

☎ **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
- 4 logelako duplexak behekalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.